

# AMVISAK HODITERIA BERRITU DU GREEN TEKNOLOGIA ERABILIZ

Zanga gutxiago, hondakin gutxiago eta biztanleentzat eragozpen gutxiago.


Beharrezkoa den zangaren luzeraren % 3 soilik irekitzeko aukera ematen duen prozesu berri honen bidez, Betoñuko Atea kaleetik Madril kaleraino doazen edateko uraren hornikuntza-tutuak berritzeko lanei ekin die AMVISAK, bidea oso zaharra baita eta hornikuntza-sistemak hausturak izan baititu.

Metodo alternatibo horrek, hondakinaren sorrera murrizteaz gain, betetze-materialen erabilera, makineriaren erabilera eta, jakina, biztanleari sortzen zaizkion eragozpenak ere murrizten ditu. Une oro uraren hornikuntza bermatuz, zuntz-zementuzko tutu zaharrak polietilenoazko tutuez ordezkatuko dira, sistema ekologiko eta berri baten bidez; sistema horrek aukera ematen du lehendik dagoen tutua atera gabe tutu berria sartzeko.

Sistemak hainbat fase ditu; lehendik dagoen tutua ikuskatu ondoren eta makineria instalatzeko sarbideak induskatu eta garbitu ondoren, polietilenoazko tutuen tarreak lotuko dira, beroaren bidez soldatuz. Gero, barruan sartu, eta muturrak lotuko dira, eta geldi daitezkeen espazioak beteko dira.

Hori guztia zanga handirik egin gabe lortzen da, eta makineriaren erabilera eta, aldi berean, zarata murrizten dira; gainera, zirkulazioa moztu gabe egin daiteke.

Urrats berde berri bat, AMVISAK eskaintzen dituen zerbitzuen kalitatearen hobekuntzan.



## MUGITU FITXA URAREN ALDE

Zure ur-kontsumoa nola hobetu dezakezun jakin nahi duzu? Badakizu zenbat kontsumitzen duzun? Gasteizko uraren kalitateari eta uraren kudeaketaren beste alderdi batzuei buruzko informaziorik behar duzu? Kezka horiei erantzuteko eta hiriko kontsumitzaileek izan ditzaketen zalantzak argitzeko, AMVISA **uraren kudeaketaren alderdiei buruzko informazio praktikoa, aholkuak eta azalpenak biltzen dituen** materiala prestatzen hasi da; horretarako, fitxa batzuk prestatu ditu, gaztelaniaz eta euskaraz. Fitxa horiek [www.amvisa.org](http://www.amvisa.org) webgunean dituzue eskura.

Dagoeneko lehenengo zortzi fitxak kontsulta daitezke, eta, pixkana, beste unitate batzuk gehituko zaizkie horiei. Askotariko alderdiak landuko dituzte, besteak beste, ur zikinen sarea, uraren berrerabilera edota ohiko izapidetzeak, eskaintzen diren zerbitzuekin lotutako ahalik eta galdera gehienei erantzun ahal izateko.



## HITZARMENA URA AGENTZIAREKIN

AMVISAK eta URA Uraren Euskal Agentziak duela hiru urte sinatu zuten **lankidetzaren hitzarmena** lutzatzea erabaki dute. Hiriko hornikuntza bermatzeko eta hobetzeko beharrezkoak ziren lanak egiteko sinatu zen hitzarmena. Lan horien artean, Albinako urtegiaren eta Arakako EUaren arteko hoditeria berria azpimarratu behar da, urte honetan amaitu berri dena.

Urte honetatik 2015era arte, 4,9 milioi euro jasoko dira URAtik; gaur egunera arte jasotako 6 milioi baino gehiagori batuta, 11,3 milioiko finantziazio osoa adierazten du kopuru horrek.



## IRADOKIZUNEN BAT EGIN NAHI DIGUZU, EDO IRITZIA EMAN?

Posta elektronikoz egin dezakezu. Hauxe da helbidea: [info@futuraplana.org](mailto:info@futuraplana.org)

